

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRI EREDUAREN, HIRIGINTZAREN, ETXEBIZITZAREN,
GARBIKETAREN ETA INGURUMENAREN SAILA
Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Egikaritzea

Andre Maria Zuriaren Koroatzearen kaleko 6 zenbakiko 5. solairuko eskuineko aldean dagoen etxebizitzan inskribatutako karga kentzeko eskaera baiestea, Vitoria-Gasteizko hiriko Koroatzearen auzoko bizitegi-eraikinak birgaitzeko dirulaguntzetarako deialdiaren barruan

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko ekainaren 6an egindako ohiko bilkuran:

Lehen.- Baiestea B. A. L. de M. izeneko herritarrak (NAN: XXX6204XX) 2025eko otsailaren 14an egindako eskaera, Vitoria-Gasteizko Andre Maria Zuriaren Koroatzearen kaleko 6 zenbakiko 5. solairuko eskuineko aldean dagoen etxebizitzan inskribatutako karga kentzekoa, zeina Vitoria-Gasteizko hiriko Koroatzearen auzoko bizitegi-eraikinak birgaitzeko dirulaguntzetarako deialdiaren barruan egin baitzuen, deialdiaren 12. oinarriko 11. puntuan eta 15. puntuan ezarritakoarekin bat etorritz, behin interesdunak jasotako laguntzen zenbatekoa eta ordainsarien, ordejarrien eta erregistro-gastuen zenbatekoa itzuli ondoren.

Bigarrena.- Interesdunari ebazpena jakinaraztea, eta ohartaraztea ezen haren kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daitekeela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik.

Nolanahi ere, aldez aurretik aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori berariaz edo ustez ebatzi arte—. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik, bestela, edozein unetan aurkeztu ahal izango da, araudi espezifikokoaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko ekainaren 16an

Alkate-lehendakaria

MAIDER ETXEBARRIA GARCÍA